



ZELAN JOKATU NIRE LANTOKIAN COVID-19 KASU POSITIBOEN AURREAN

COVID-19aren sintomak edo koadro klinikoa: Arnas infekzio akutua da; eta horren barruan bat-batean ager daitezke, besteak beste, sukarra, eztula edo aire-faltaren sentsazioa. Kontuan hartzeko moduko beste sintoma batzuk hauek dira: eztarriko mina irenstean, usaimena galtzea, giharretako minak, beherakoak, toraxeko mina edo zefalea.

LANGILE SINTOMADUNA: KASU SUSMAGARRIA EDO BALIZKO KASUA

1. Edozein sintoma agertzen duen langileak horren berri **jakinarazi behar die berehala** bere lehen arretako medikuari eta bere enpresari.

Sintomak etxean agertuz gero, etxe barruan geratu beharko da isolamenduan, eta deitu behar dio dagokion osasun-zentroari edo Osasun Kontseiluko Zerbitzuari (900 20 30 50 / 948 29 02 90) edo, beharrezkoa balitz, 112 larrialdi-zerbitzura; eta leku horietatik hasiko dira bilatzen kontaktu estuak.

Sintomak lantokian agertuz gero, enpresari jakinarazi behar dio, enpresak prebentzio-zerbitzuari ohartarazi diezaion. Zerbitzu horretatik hasiko dira bilatzen kontaktu estuak; eta gero, langilea etxean isolatuko da, behin dagokion osasun-zentroa jakinaren gainean jarri ondoren. Kontaktua estuen bilaketa atzeratuko da, harik eta jatorriko kasua positiboa dela berresten den arte.

Bitartean langilea kasu susmagarritzat hartuko da, eta isolamenduan geratuko da, Osakidetza preskripzio medikoaz, **PCR** proba diagnostiko edo serologikoaren emaitzaren zain. Proba hori **24 orduko** epean egingo da.

- **PCRa negatiboa** bada, eta **sintomak desagertu badira**, kasua eta isolamendua amaitutzat joko dira.
- **PCRa negatiboa** bada, **baina sintomek beren horretan jarraitzen** badute, **balizko kasutzat** hartuko da, eta PCRa **handik 48 ordura** errepikatuko da, berresteko. Bigarren PCRaren emaitza negatiboa bada berriro, **proba serologikoa** egiteko aukera aztertu liteke.
- **PCRa positiboa** bada, **kasu berretsia** izango da.

2. Kasu berretsien isolamendua 3 egun gehiagoz luzatuko da sukarra eta koadro klinikoa onbideratu direnez geroztik; eta **gutxienez 10 egunetan**, sintomak agertu ziren egunetik hasita. Ospitaleratu eta gero etxean isolatu bada, **gutxienez 14 egunetan** egongo da ospitaleko alta eman denetik.



3. Langileen kutsatze edo isolatzeengatik aldi baterako ezintasun-aldiak lan-istripuaren pareko egoeratzat hartuko dira, Gizarte Segurantzak aldi baterako ezintasunagatik ematen duen **diru-prestazioaren** ondorioetarako soilik. Eta **gaixotasun arrunta** izango da kontingentzia, lanaren bidezko kutsatze-kasuetan izan ezik (sektore sanitario eta sozio-sanitarioa). Kasu susmagarri, berretsi eta balizkoen baja eta alta medikoa Osakidetzako Lehen Arretan emango dira. Pertsonal sanitario edo sozio-sanitarioaren kasu berretsietan berriz lanera itzuli ahal izateko, isolamenduaz gain PCR negatiboa beharko da.

4. Kasu berretsi batetik aurrera, **kontaktu estuak arakatu** beharko dira. Familia-eremuan, Osakidetzak egingo du; eremu publikoan, aldiz, zaintza epidemiologikoaren atalak arakatuko ditu kontaktu sozialak; eta azkenik lan-eremuan prebentzio-zerbitzuak egingo du, enpresa bakoitzaren kontingentzia-planetan ezarritakoari jarraituz –langileei osasun-alarmaren hasieratik ezagutarazi behar zaizkienak–. Prebentzio zerbitzuak kontaktu estuen zerrenda osatu eta planaren arabera neurriak abiaraziko ditu (prebentzio, garbikuntza, antolamendu eta kontrolaren arloetakoak).

Nor hartuko da kontaktu estutzat?

- **Kasu positibo bati zainketak eman dizkieten pertsonak; hau da, babes-neurri egokiak erabili ez dituzten langile sanitarioak eta sozio-sanitarioak (*), senideak edo antzeko kontaktu fisikoa izan duten pertsonak.**
- **Kasu positibo baten leku berean egotea, 2 metro baino hurbilago eta 15 minutuz baino gehiagoz (**).**
- **Hegazkinez, trenaz edo ibilbide luzeko beste garraio bidez bidaiatzea, kasu positiboaren inguruko 2 eserlekuko erradioan.**

(*) Kutsatzea lan-eremutik badator, prebentzio-neurrietan zer huts egin duen aztertu beharko da, kasu gehiago ez gertatzeko; eta, horretarako, ebaluazioa berregingo da eta/edo kontingentzia-plana egoera berrietara egokituko da.

(**) Lan-eremuan, prebentzio-zerbitzuak aztertuko ditu kontaktu estuak. Hala ere, langileak osotasunean aztertu behar du ea hartutako neurriak benetan eraginkorrak eta nahikoak diren; batez ere, hurrengo alderdi hauek kontuan hartuz: 1,5 metroko distantzia soziala, eskuen, ekipamenduen eta lanabesen garbitasuna, pertsonen arteko kontaktuen iraupena, aireztapena, instalazioen garbitasuna eta abar. Hau da, gure lan-baldintzak egokiak eta nahikoak izan diren ala ez jakinarazi behar dugu; lankideekiko kontaktu errealak eta kutsatzeak saihestearren.



LANGILE SINTOMAGABEA, BAINA KASU POSITIBO BATEN (KASU BERRETSIA) LANKIDEA.

Zure lantokiko lankideren batek positibo eman badu PCRn, kasu hori kasu berretsia da, eta **zu kontaktu estuen zerrendan** egon zaitezke goragoko deskribapenean esandakoa betetzen baduzu.

1. Prebentzio-zerbitzuak egiten duen kontaktu estuen zerrendarako, lehen sintomak agertu edo kasuaren diagnostikoa eman baino **2 egun lehenagotik hartu behar da kontuan**. Zerrenda hori Osakidetzara bidali beharko da.

2. Kasu berretsien kontaktu estuek etxeko berrogeialdia egingo dute 14 egunez, azken kontaktua izan denetik edo, bizikideen kasuan, isolatua izan denetik. PCR proba egitea bereziki gomendagarria da talde kalteberentzat edo pertsonal sanitario/sozio-sanitarioarentzat. Prebentzio-zerbitzuak txosten bat egingo du lan-eremuko kontaktu estuen aldi baterako ezintasunaren egoera egiaztatuta gera dadin.

3. Kontaktua berrogeialdian sintomak garatzen hasten bada, kasu susmagarritzat hartuko da.

- Kontaktua sintomak agertuz gero, eta PCRaren emaitza negatiboa bada, handik 48 orduz PCR errepikatuko da.
- Berrogeialdiaren barruan sintomak garatzen badira, PCR egingo da 24 orduko epearen barruan.
- Sintomarik agertu ezean, eta PCRaren emaitza negatiboa bada, isolamenduan jarraituko du, eta azken kontaktua izan denetik 10 egunera PCR bat egin ahal izango da.
- Kontaktuen PCRaren emaitza positiboa bada, kasu berretsia dela hartuko da.

ZER EGIN ZURE ENPRESAK COVID-19AREN AURKAKO PREBENTZIO-NEURRIRIK HARTU EZ BADU, EDO ZURE LANTOKIAN KASU BERRETSI BAT DAGOELAKO SUSMOA BADUZU, NAHIZ ETA ENPRESAK AITORTU EZ, EDO KONTAKTU ESTUEN ZERRENDA EGIN GABE EGON.

Gogoratu behar da gaur egun uste dela kutsatutako pertsonen %45 inguru sintomarik gabekoak direla. Hau da, ez dute sintomarik, nahiz eta kutsatuta egon eta beste pertsona batzuk kutsatzeko gai izan.

Hori dela-eta, bereziki zorrotzak izan behar gara lantokietako prebentzio-neurriak betetzeko orduan, bai eta enpresari eta haren prebentzio-zerbitzuari kontingentzia-plana betetzeko eskatzeko orduan, eta baita kontaktu estuen zerrenda osatzeko (lanpostuko egoeraren errealitatearekin bat etorritik), eta ondoren zerrenda hori Osakidetzari adierazteko eskatzeko orduan ere.



Kasu baten susmoa ikusita, prebentzio zerbitzuak ez du 24 ordu geroago arte jardungo, kasu susmagarria kasu berretsi bihurtu dela jakin ondoren. Hori dela-eta, langile **"susmagarri edo berretsi"** batekin harreman estua izan dugula uste badugu, enpresari eta prebentzio-zerbitzuari idatziz eskatu behar diegu, gertaera objektiboak adieraziz (eguna, txanda, kontaktu hori izan den egoera, etab.), jardute-protokoloan, isolamenduan eta, agian, PCRn sar gaitzaten, kontaktu estu gisa.

Prebentzio-zerbitzuaren erantzuna ezezkoa bada, eta idatziz behar bezala justifikatuta badago, OSALANeko Laneko Osasunaren Atalera jo ahal izango dugu, egoeraren berri emateko eta konponbide bat bilatzeko.

Prebentzioko ordezkarien kasuan, enpresak langileen artean agerturiko kutsatze-kasu positiboen kopurua eta ezaugarriak jakinarazi behar dizkie (izenik eman beharrik izan gabe), baina prebentzio- eta kontrol-neurriak egokiak direla, eta lan-eremuan kontaktu estuko kasu guztiak identifikatu direla ziurtatzeko behar den informazio guztia emanaz.

Bestela, salaketa jarri beharko da Lan Ikuskaritzan, eta/edo, ondoren, osasunari kalterik egin zaiolako usteen arabera, zerbitzu juridikoarekin legezko ekintzak hasteko aukerak aztertu beharko dira.